



ADOS Aholku Batzordeak hainbat kontsulta jaso ditu beste udalerrri batera joateko aukerari buruz, bizilekuak meskitarik ez duenean. Ildo horretan, honako informazio hau helarazi nahi diegu Euskadiko komunitate islamikoei:

-Aurreko udal-mugikortasunaren murrizketan interpretatu zen bezala, erlijio-zerbitzuetara edo kultu-zerbitzuetara joateko aukera ematen da, baldin eta, salbuespenez, bizi den udalerrrian ez badago eta beti gertuen dagoen lekura. Ez dago inolako muga kuantitatiborik.

-Meskita bat irekitzeaz, ixteaz eta mantentzeaz arduratzen diren Batzordeko kideak laneko, lanbideko, enpresako, erakundeetako eta legezko betebeharrak betetzearen salbuespenaren babespean egongo dira, eta hori guztia soldatapeko pertsonak diren edo ez kontuan hartu gabe. Beraz, meskita irekitzeko, ixteko edo garbitzeko eta mantentzeko joan-etorriak baimenduta daude.

-Otoitz-leku txiki bat duten udalerriei dagokienez eta kontuan hartuta leku horiek askotan ez daudela irekita bost otoitzetarako, otoitz horiek egiteko lekualdatzea baimentzen da.

La Comisión Asesora ADOS ha recibido varias consultas sobre la posibilidad de desplazamiento a otro municipio cuando el de residencia no dispone de una mezquita. En este sentido, queremos hacer llegar a las diferentes comunidades islámicas de Euskadi la siguiente información:

-Tal y como se interpretó en la anterior restricción de movilidad municipal, se permiten desplazamientos a servicios religiosos o de culto, si, excepcionalmente, no existen en el municipio de residencia y siempre al lugar más próximo. No hay límite cuantitativo alguno.

-Los miembros de la Junta de una mezquita encargados de la apertura, cierre y mantenimiento están amparados por la excepción de cumplimiento de las obligaciones laborales, profesionales, empresariales, institucionales y legales, y todo ello con independencia de que se trate de personas asalariadas o no, por lo que los desplazamientos para apertura y cierre o limpieza y mantenimiento de la mezquita están permitidos.

-En el caso de municipios que sí disponen de un pequeño oratorio pero en los que a menudo éste no está abierto para las cinco oraciones se permite el desplazamiento para los rezos necesarios.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko urtarrilaren 28a  
En Vitoria-Gasteiz, a 28 de enero de 2021